



## UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOIA	HURRENGORAKO
<b>Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2018/01/09)</b>  Hurrengo saioa: 2018/01/23)	Administrariaren kontratazioa	2017ko azaroaren 29an Administrariaren izendapena onartu zen eta ordutik Iker Lizardi Iturriza Itsasoko administrari gisa ari da lanean Itsasoko udalerako.	Honen jakinarazpena prestatu da eta aste honetan bertan banatuko da.
	Movistar eta telefono zenbakia Udalean	Udal zerbitzuak telefono fijoaren zenbakia izan bezain pronto hasiko dira Itsason. Horretarako barruko instalakuntza egitea falta da. Bitartean, telefono mugikor batera desbideratzeko aukera ere aipatzen da.	Movistarreko Unairekin hitz egin, ea telefono zenbakia lehenbailehen eskura dezakegun.
	Udal langileen ordutegia Itsasoko Udalean	Administraria asteko lau egunetan (As, Ast, Ostg, Ost) goizez egongo da, 9:30etatik 13:15k arte eta asteazkenetan arratsaldez, 15:30tik 19:15etara. Idazkari-kontuhartzailea berriz, asteko bi goizetan, launa orduz, eta bi astetik behin, asteazken arratsaldetan ere. Gizarte langilea hamabostean behin, baina kontratazio prozedura zehaztu behar da.	Idazkari-kontuhartzailearen eta gizarte langilearen egutegiak zehaztu.  Jakinarazpena herritarrei zabaldu.
	Web orria	Web orria eguneratuta izateko ardura administrariak du eta honen inguruko argibideak Aizpeak eman dizkio.	Adostu aldiko zein informazio txertatu eta nola.
	Herri Batzarra	Hurrengo Herri Batzarraren data adostu (urtarrilak 27). Atera diren gai batzuk aipatzearen: Itsasoren auzia, zabor bilketa, mapa eskolarra, inbertsio proiektuak...	Gai zerrenda eta edukia prestatzen joan.



LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Ekimen sozio-kulturalak (2018/01/12)</b>  Hurrengo saioa: 2018/01/26)	2018 1. seihiabeteko ekimenen aurreikuspena	<b>Urtarrila:</b> Koplak egiteko tailerra Santa Ageda bezperarako. <b>Otsaila:</b> Matximentako herri-bertso afaria, Santa Ageda bezperako koplak kantatzea (4ean, 12:30etan) eta 10ean lhauteri festa eta afaria. <b>Martxoa:</b> 8an Emakumeen eguneko bazkaria (agian hitzaldi, antzerki...edo osatu). Hilabete amaieran dena prest bada, Erretaulari buruzko jardunaldia (hitzaldiak, musika...) <b>Apirila:</b> Udaberriko auzolana (14ean) <b>Maiatza:</b> S Isidro bazkaria (15ean) osa liteke herriko baserriren baten bisitarekin. 27an, irteera (proposamena Zumaia, itsasontzitik Kizkitza ikusi...) <b>Ekaina:</b> S Juan bezpera 24ean. Papera egiteko tailerra eta ukenduak eta xaboia... OHARRA: aurreikuspenak dira, oraindik ez behin betikoak	2. seihiabetea aurreikusi
	Goimen-era aurkeztu beharreko diru-laguntza eskaera	Lehen hurbilpena egin zitzaion eta hurrengo eguneko azpiegituren batzordean osatu.	Ikus beheko akta

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Azpiegitura eta ingurumena (2018/01/13)</b>  Hurrengo saioa: 2018/02/03)	Alegiako proiektuaren lizitazioa	Urtarrilaren 12an, eguerdiko 13:00etan amaitu zen eskaintzak egiteko epea eta hiru enpresek parte hartu dute. Bertan, publikoki ireki ondoren Antio enpresari esleitu zaio obra	Aparejadoreak baldintzak egoki betetzen dituen aztertu ondoren, 3 hilabeteko epean amaitu beharko du
	2017 aurrekontuen	Aurreko urtea 250.000 € rekin itxi da, proiektuak orain	Herri Batzarrean xehetasunez



	balantzea	gauzatzen hasiko baitira. Honenbestez, kopuruak borobilduz, 2018ak 325.000 € inguru izango lituzke inbertsioetarako	adieraziko dira 2017ko gastuak eta sarrerak, eta 2018rako proiektu proposamenak partekatu eta jaso
	<p><b>GOIMEN</b> deialdia. Urtarrilaren 22rako diru-laguntza deialdian parte-hartzeko zein proiektu aurkeztu adostu da: <b>Itsasoko paisaia naturala, kulturala eta soziala balioan jartzea</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>· 9 panel informatibo diseinatzea, bi berri bere osotasunean ezarriz (Mandubizelaiko trikuharrian eta S Bartolome elizan)</li><li>· Baserrietako 80 seinaleetarako Udalari dagokion logoa zeramikan egitea</li><li>· Herriko oinezko ibilbide zirkularreko (Itsaso-Ariola-Kizkitza-Mandubia-Altzigarraga- -Urteaga-Itsaso) 18 seinaleetarako ikono identifikagarri bat zeramikan sortzea</li><li>· San Lorentzo ermita ingururako bi mahai eta paseo biderako 4 eserleku erostea</li><li>· San Lorentzo ermitara Itsasoko iturburutik ura eramatea</li><li>· Auzolanaren ondorengo afari-meriendaren kostua (aurreikuspena: 50-60 lagun). Auzolanean egingo diren lanak:<ul style="list-style-type: none"><li>• Aipatutako seinaleetan logoak ezartzea</li><li>• Itsasotik Alegiara doazen bi herribide historikoak prestatzea, langak eta hesiak egin eta ibilbide zirkular berria seinalizatzea</li><li>• San Lorentzon iturria egin eta mahaia eta eserlekuak kokatzea</li></ul></li></ul>		
	Udal espazioen antolaketa	Udal administraria eta idazkari-kontuhartzailearen bulegoak eta arreta zerbitzua, erdiko saloian kokatzea adostu da. Era honetara, lehen espazioa, beste hainbat bilera eta lan taldeen saioetarako erabilgarri geratuko da.	Hasiera batean honela frogatuko da eta egokitasuna baloratu. Falta diren aulki eta gainerakoez hornitu